

herrera

«Berdeguneak ondo diraute Gaiztarron»

Urriaren 29tik azaroaren 5era bitartean, San Luis Gonzaga Parrokiako behealdean «Bidebieta-1 parkea, ibilbide historikoa» izenburupean, Gaiztarro inguruko nondik-norakoak azalduko dizkigute Arantza Martinez eta Maria Isabel Murillo gazteek. «Ingurugiroa eta lurralde antolaketa» masterrak bultzatu dituzte gazte hauek, parke berezi honen historia berreraikitzen. Batez ere pertsonen oroimenean finkaturiko historia bildu eta zabaldu nahi dute.

Zer izan da Gaiztarro parkea?

Egia esan izugarritzko lekua izan zen, oso ondo zaindutako zonaldea genuen eta nahiz eta garapenak aldaketa ugari eragin bertan, saiatu dira beti ere ingurugiroa errespetatzen, hau da, espazio berdeak mantendu dira urbanizatu den arren.

Inguruko beste zenbait etxe multzoekin ez da gauza bera gertatu, ezta?

Bidebieta-La Paz eta inguruko auzoek 60.



Arantza Martinez eta Maria Isabel Murillok Gaiztarro inguruko nondik norakoak azaldu dizkigute.

hamarkadako hedapen edo zabalpen guneak izan dira, aldiz, Bidebieta I-can eraikuntza portzentaiak ondo gorde ziren.

Nola bururatu zitzaizuen honelako erakusketa egitea?

Datuak bildu ahala sortu zitzaigun erakusketa egiteko asmoa. Hasiera batean ahalik eta datu zaharrenak biltzea pentsatu genuen, horretarako Inazio Gaiztarrarekin hitzegin genuen. Gero, planoak eta erregistroak begiratu ondoren, 1889. urteko datuak ere aurkitu genituen. 1962. urteko Udal Plan Orokorra ere ikasi behar izan genuen.

Auzotarrek ere hartu

dute parte, ezta?

Bai, hala da. Inguruko biztanleek historia aberatsa bildu dute anekdota eta beraiek bizitako istorioekin.

Nola antolatu duzue erakusketa?

Batez ere argazkietan oinarritu gara. Gaiari dagokionez, hirutan banatu dugu, alde historikoa 1962ko Plan Orokorra baino lehenagoko datuez osatua (1870-1963), bigarrenik 1963-1995 urteak aztertzen dituen arloa eta azkenik, landareei eskainitako zonaldea prestatu dugu, batez ere parke honen zuhaitz eta landare espezieak oso aberatsak direlako.

Etorkizunera begiratu zer?

Batipat haurrei eskaini nahi diegu informazioa, horretarako parkean zehar dauden landare motak erakutsi asmoz, ibilaldiak antolatu nahi ditugu.

Erakusketa hau 17.00etatik 21.00etara izango dugu ikusgai eta gaur ostirala, hilak 3, 20.00etan hitzaldi bat izango da: lehenik alderdi historikoaz arituko dira, bigarrenik 1963. urtetik orain arteko aldaketak aztertuko dira eta azkenik Juanjo Mancisidorrek San Luis Gonzaga Parrokiak jasan dituen aldaketak kontatuko dizkigu.

LARRAITZ GARMENDIA (TFNOA.: 391267)